Slalom-eko Euskadiko XXVIII.Kopako antolaketa Euskal Kanoe Federakuntzari dagokio, jarraian aipatzen diren erakundeek lehiaketari laguntza teknikoa emanaz:

- 1.go Lehiaketa – S.D.Santiagotarrak**
- 2.Lehiaketa – Atlético S.S.**
- 3.Lehiaketa- Atlético S.S.– S.D.Santiagotarrak**
- 4-Lehiaketa –Beti Busti K.E.**
- 5-Lehiaketa – Atlético S.S. - S.D.Santiagotarrak**
- 6-Lehiaketa – Atlético S.S.– S.D.Santiagotarrak**
- 7-Lehiaketa – Atlético S.S. - Beti Busti K.E. – S.D.Santiagotarrak**
- 8-Lehiaketa – Atlético S.S. - Beti Busti K.E. – S.D.Santiagotarrak**

3. Art.- Lehiaketa Batzordea.

EKFtzako Araudian ezarritakoaren arabera, Kopa honetako Lehiaketa bakoitzak bere Lehiaketa Batzordea izango du, EKF-tzako zuzendaritza organoak ezarria, beti mutualizaturiko 3 epailek eratua.

4.Art.- Epaile eta arbitroak.



KOPA honetarako puntuagarriak diren lehiaketa bakoitzerako epaile taldea, EKF-tzako Zuzendaritzako batzak izendatuko du, Euskal Autonomi Erkidegoko Epaileen Batzarrak proposaturik.

5.Art.- Parte hartzea.

Kluben eta palisten parte-hartzea lehiaketan Oinarri Orokorrak betetzearen mende egongo da.

Lehiaketa hauek, 10.artikuluaz azalduko kategorietako, Euskadiko piraguismo Klub zein berriak gonbidapena duten klubetako palistei irekiak daude.

Klubek, teknikari arduraduna alta emanda eduki beharko dute, teknikari lizentzia edukita.

Palistak, 2026-ko lehiaketa baimena bere federazioak eguneraturikoaz horniturik etorri behar du.

Parte hartzaile batek bere kategorian edo goiko hurrengo mailan soilik har dezakete parte.

Infantilei dagokionez, teknifikazio programan parte hartzen dutenek soilik izango dute izena emateko aukera, beti ere lurraldeko planifikazioan aurreikusita baldin badago. Txapelketetan inskribatzeko, infantil hauek momentu horretan teknifikazio programa barnean egon beharko dute.

Bi modalitateetan parte hartu ahal izango dute + C-2Mixtoan.

6.Art.- Izenemateak

Izenemateak, Lizentziatarako aplikazioko, izenemateetarako atalean burutu beharko dira, lehiaketa ospatu aurreko asteartean, 23:59h-ak baino lehen, epea kanpo iritsitako izenemateak ez dutelarik zertan onartuak izan beharko.

Talde buruek, txapelketako asteko ostiralean, 13.00h-ak baino lehen, Emaitzen Epaileari jakinarazi beharko diete, beraien palisten izenemateen baieztapena edo ezeztapena.

Izena eman gabeko palista edo ontziek ezin izango dute parte hartu.

Junior mailako parte hartzaileek, Senior mailan parte hartzeko aukera izango dute, 23 urtez azpiko mailarik ez dagoenean.

7.Art.- Palisten identifikazioa.

Identifikatzeko, epaileak posible izango du, NAN, gida baimena, pasaporte edo bere nortasuna benetakotzen duen beste agiriren bat eskatzea.

8.Art.- Dortsalak.

Dortsalak kamiseta modukoak izango dira, bularralde eta bizkarraldean zenbakia daramatelarik.



Lehiaketa bakoitza amaiturikoan, izendaturiko pertsonari itzuli beharko dizkio dortsalak, itzultzen ez den dorsal bakoitzeko edo hondaturik itzulitako dorsal bakoitzeko 30€ ordaindu beharko ditu.

9.Art.- Modalitateak.

Lehiaketa puntuagarri ezberdinen Araudi Espezifikoei kasu eginez, modalitateak honako hauek izan litezke:

Kayak: Gizonezkoak Seniorrak-23 urtez azpikoak-Juniorrak-Kadeteak eta Beteranoak K-1.

Emakumezkoak Seniorrak-23 urtez azpikoak -Juniorrak-Kadeteak eta Beteranoak K-1

Canoa Gizonezkoak Seniorrak-23 urtez azpikoak -Juniorrak-Kadeteak eta Beteranoak C-1 eta C-2.

Gizonezkoak Seniorrak- -Juniorrak-Kadeteak eta Beteranoak C-2.

Emakumezkoak Seniorrak-23 urtez azpikoak -Juniorrak-Kadeteak eta Beteranoak C-1.

Emakumezkoak Seniorrak- Juniorrak-Kadeteak eta Beteranoak C-1.

Mixto seniorrak, Juniorrak- Kadeteak eta Beteranoak C-2

Paracanoe: Gizonezkoak Seniorrak-23 urtez azpikoak-Juniorrak-Kadeteak eta Beteranoak PK2/ PK3

Emakumezkoak Seniorrak-23 urtez azpikoak -Juniorrak-Kadeteak eta Beteranoak PK2/ PK3

Gizonezkoak Seniorrak-23 urtez azpikoak-Juniorrak-Kadeteak eta Beteranoak PV2/ PV3

Emakumezkoak Seniorrak-23 urtez azpikoak -Juniorrak-Kadeteak eta Beteranoak PV2/ PV3

Mixto seniorrak, Juniorrak- Kadeteak eta Beteranoak PV-2/ PV3

Euskadiko kopako 2. Eta 5. probetan (Gipuzkoa eta Euskadiko Txapelketetan), aurrez aipaturiko kategoriez gain, taldekako lehiaketa ere egongo da. Pate hartzaile batek, soilik taldekako bi modalitateetan bakarrik parte hartu ahal zango du. Kadeteen taldeka soilik beraien kategorian aritzea izango dute.

10.Art.- Kategoriak

Gizonezkoak: Seniorrak, 23 urtez azpikoak, Beteranoak, Juniorrak eta Kadeteak.

Emakumezkoak: Seniorrak, 23 urtez azpikoak, Beteranoak, Juniorrak eta Kadeteak.

Mistoa: Seniorrak, Beteranoak, Juniorrak eta Kadeteak.



Slalom-a

Ranking-a eta Irteera ordena:

Rankinga: denboraldiko lehiaketak ospatu heinean, autonomi mailako ranking bat osatuko da, kategoria eta ontzien arabera. Ospaturiko probak ken, momenturarte eskuraturiko emaitzik txarrena.

Irteera ordena: kategoria eta modalitateko ranking-aren alderantzizkoa izango da. Kopako 1.go lehiaketarako, 2025ko Euskadiko Txapelketako sailkapena hartuko da kontutan.

Kopako 7. probarako, 2025ko Euskadiko Txapelketako emaitzak hartuko dira kontutan.

Bi probetan parte hartzea ahalbidetzeko, jarraian azaltzen den irteera ordena jarraituko da. Orden honek aldaketak jasan ditzakeelarik izenemateek arabera.

- | | |
|-----------------------------|------------------------------|
| 1- Gizonezko Seniorra K -1 | 14. Emakumezko Juniorra K-1 |
| 2. Gizonezko Juniorra K-1 | 15. Emakumezko Kadetea K-1 |
| 3. Gizonezko Kadetea K-1 | 16. Emakumezko Beteranoa k-1 |
| 4. Gizonezko Beteranoa K-1 | 17. C-2 Mixtoa |
| 5. Emakumezko Seniorra C-1 | 18. Gizonezko Seniorra C-2 |
| 6. Emakumezko Juniorra C-1 | 19. Gizonezko Juniorra C-2 |
| 7. Emakumezko Kadetea C-1 | 20. Gizonezko Kadetea C-2 |
| 8. Emakumezko Beteranoa C-1 | 21. Gizonezko Beteranoa C-2 |
| 9. Gizonezko Seniorra C-1 | 22. Emakumezko Seniorra C-2 |
| 10. Gizonezko Juniorra C-1 | 23. Emakumezko juniorra C-2 |
| 11. Gizonezko Kadetea C-1 | 24. Emakumezko Kadete C-2 |
| 12. Gizonezko Beteranoa K-1 | 25. Emakumezko Beteranoa C-2 |
| 13. Emakumezko Seniorra K-1 | |

Kayak Cross-a

Ontzien irteera ordena, kategoria eta modalitateko 2025ko Euskadiko Kayak Cross-aren alderantzizkoa izango da.

11.Art.- Ibilbidea

Slalom

Slalom lehiaketetako ibilbidea, kategoria eta modalitate guztientzat bera izango da.

Kayak Cross-a

Zirkuituaren betekizunak:



Kirolariek, slalom Kayak Cross ibilbidea osatzeko 45 eta 60 segundo arteko denbora behar dute.

Ibilbideak lau (4) atetik sei (6) ate izan behar ditu ibaian behera, eta, ahal denean:

- Erlojupekoan: erremonteko bi (2) ate, bata eskuinetara negoziatua eta bestea ezkerretara.
- Kanporaketetan: erremonteko bi (2) ate pare, atletak eskuinera edo ezkerrera negoziatzeko aukera izan dezan.

Ibilbideak eskimotaje-eremu bat izan behar du, markatuta.

Ahal den guztietan, hasierako plataforma egoki bat egon behar da, lehiaketari ekiteko kanal nagusian erortzea ahalbidetuko duena.

12. Art.- Lehiaketa Sistema- Slalom:

Lehiaketa bi mangek osatzen dute. Azken emaitza, *puntuazio onena izan duen mangarena* izango da.

13. Art.- Lehiaketa Sistema- Kayak Cross-a.

Honako hauek osatzen dute Kayak Cross lehiaketa:

- Sailkatze fasea, banakako erlojupeko batekin
- Kanporaketen fasea. Izena eman dutenen kopuruaren arabera, final-laurdenak, finalerdiak eta finala izango dira.

Lehiaketa erlojuaren kontrako txanda batekin hasiko da, kanporaketen fasean zein palistak parte hartuko duten zehazteko balioko duena.

Progresio-sistema - Kayak Cross

Kayak Cross probaren progresio-sistema honako hau izango da, kategoria bakoitzean inskribatutako ontzi kopuruaren arabera:

Izenemate kop.	Final laurdenak	Finalerdiak	Finala
16 edo gehiago	4 kanporaketa 4	2 kanporaketa 4	1 kanporaketa 4
8 – 15	Ez	2 kanporaketa 4	1 kanporaketa 4
7	Ez	1 kanporaketa 3 1 kanporaketa 4	1 kanporaketa 4
6	Ez	2 kanporaketa 3	1 kanporaketa 4
5	Ez	1 kanporaketa 2 1 kanporaketa 3	1 kanporaketa 4
2-4	Ez	Ez	1 kanporaketa 4



2026.urterako Slalom-eko Euskadiko XXVIII Kopa



16 edo 16 kirolari baino gehiagorentzako multzoen taula. Final-laurdenak, finalerdiak eta finala

Final laurdenak	Final-erdiak	Finala
1.go Final laurdena 1go erlojupekoan 8. erlojupekoan 12. erlojupekoan 16. erlojupekoan	1.go Finalerdia 1go QF1 2. QF1 1.go QF2 2. QF2	Finala 1.go SF1 2. SF1 1.go SF2 2. SF2
2- final laurdena 4. erlojupekoan 5. erlojupekoan 9. erlojupekoan 13. erlojupekoan		
3. final laurdena 3. erlojupekoan 6.erlojupekoan 10. erlojupekoan 14. erlojupekoan	2. Finalerdia 1.go QF3 2. QF3 1.go QF4 2. QF4	
4º Cuartos de final 2. erlojupekoan 7. erlojupekoan 11. erlojupekoan 15 erlojupekoan		



KUDEAKETA AURRERATUARI
DIPLOMA
A LA GESTION AVANZADA



8-15 parte-hartzaile izena emanaz izanez gero, lehenengo zortzirik zuzenean finalaurreko fasera pasatuko dira..

Finalerdia	Finala
1go finalerdia 1go erlojupekoan 4. erlojupekoan 5. erlojupekoan 8. erlojupekoan	
	Finala 1.go SF1 2. SF1 1.go SF2 2. SF2
2. finalerdia 2. erlojupekoan 3. erlojupekoan 6. erlojupekoan 7. erlojupekoan	



7 parte-hartzailek izena eman izanez gero, finalerdi eta finalak jokatuko dira.

Finalerdia	Finala
1go finalerdia 1go erlojupekoan 6. erlojupekoan 4. erlojupekoan	
	Finala 1.go SF1 2. SF1 1.go SF2 2. SF2
2. finalerdia 2. erlojupekoan 5. erlojupekoan 7. erlojupekoan 3. erlojupekoan	



6 parte-hartzailek izena emanez gero, finalerdi eta finalak jokatuko dira.

Finalerdia	Finala
1go finalerdia 1go erlojupekoan 6. erlojupekoan 4. erlojupekoan	
	Finala 1.go SF1 2. SF1 1.go SF2 2. SF2
2. finalerdia 2. erlojupekoan 5. erlojupekoan 3. erlojupekoan	



KUDEAKETA AURRERATUARI
DIPLOMA
A LA GESTION AVANZADA



5 parte-hartzailek izena eman izanez gero, finalerdi eta finalak jokatuko dira.

Finalerdia	Finala
1go finalerdia 1go erlojupekoan 2. erlojupekoan	
	Finala 1.go SF1 2. SF1 1.go SF2 2. SF2
2. finalerdia 3. erlojupekoan 4. erlojupekoan 5. erlojupekoan	

4 parte-hartzaile edo gutxiagok izena eman izanez gero, zuzenean azken fasera pasatuko da.

14.Art.- Itxiera Kontrola- Slalom-ean.

Oinarrizko denborak modalitateka:

Itxiera kontrol denborak eskuratzeko, Klub euskaldunetako lehenengo hiru K-1en bataz besteko denborekin egingo da.

K-1 Seniorra	100%
C-1 Seniorra	115%
K-1 Emakumezko Seniorra	120%

C-2 Seniorra	120%
C-2 Senior Mixtoa	120%
C-1-C2 Emakumezko Seniorra	140%

Kategoria eta modalitate bakoitzeko sailkapen mugak honakoak izango dira:

	Seniorra	Juniorra	Kadete a	Beteranoak
	135%	145%	155%	145%
K-1	135,00	145,00	155,00	145,00
C-1 (115% K-1)	155,25	166,75	178,25	166,75
C-2 eta C-2 Mixtoa (120% K-1)	162,00	174,00	186,00	174,00
K-1-Emakumezkoak(120% K-1)	162,00	174,00	186,00	174,00
C-1-C2 Emakumezkoak(130% K-1)	175,50	188,50	201,5	188,50

15.Art.- Ekipo Teknikoa

Slalom:

Ontziak:

Txapelketa mota honetarako EKF-tzako araudian ezarritakoa bete beharko dute ontziek.

Slalom-eko ontzien neurri eta pisuen berri ematen da jarraian:

K-1	C-1	C-2	
350	350	410	Luzera Minimo Cm
60	60	75	Zabalera minimo Cm
9	9	15	Pisu mínimo Kg

Gila:

Edozein objektu ateratzen dela, kaskoaren molde berean behar du egina egon, ez du 20mm baino gehiago izan behar, ez du 8mm baino estuagoa izan behar eta gutxienez 4mm-tako radioa izan behar du kanpoko ertzak.

Kayak Cross

Untziak:

Kayakisten untziak K-1 ak izango dira. Untzi guzti hauek segurtasuna bermatuko duten elementuez horniturik joan beharko dute eta arauturiko pisu eta neurriak bete beharko dituzte.



Gutxiengo pisua	Gutxiengo luzera	Gehiengo luzera
18Kg	2,05m	2,75m

Sailkapen-txandan, slalom konbentzionaleko arauzko piraguak erabili ahal izango dira, baldin eta parte hartzen duten klub guztiak ados badaude lehiaketaren aurreko taldeburuen bileran.

Palistak:

Modalitate bakoitzerako EKF-tzako araudiek ezarritako segurtasun neurritz horniturik joan beharko dute palistek.

16.Art.- Kluben lehiaketa bakoitzeko puntuaketa.

slalom

Lehiaketa hau osatzen duen proba bakoitzean, soilik itxiera kontrol denboran helmugaraturiko lehenengo hemezortzi ontziek puntuatuko dute, bakoitzari honako puntuaketa ezarriz:

SAILKAPENA	PUNTUAK
1.go	21
2.	18
3.	16
4.	15
5.	14
./.	./.
16.	3
17.	2
18.	1

Puntuazioari dagokionez, kategoria eta modalitate bakoitzean, gutxienez, bi klub ezberdinetako hiru ontzik irteeran egon behar dute, itxiera kontroleko denbora tartean iritsitako lehenengo hemezortzi ontziek puntuatuko dutelarik.

Taldeakoko lehiaketetako puntuazioari dagokionez, honakoa izango da:

SAILKAPENA	PUNTUAK
1.go	42
2.	36
3.	32
4.	30
5.	28



./.	./.
16.	6
17.	4
18.	2

Klub bakoitzeko 1.go ontziak bakarrik puntuatuko du, klub bakoitzean, talde bat baino gehiago badaude, klub bereko hurrengo sailkatuek lekua okupatuko duela, baina ez puntuatu.

Kayak Cross

Banakako azken sailkapena, sailkapen-fasearen eta kanporaketa-faseen arabera zehaztuko da. Fase horiek final-laurdenak, finalerdia eta finalak izango dira (izena eman dutenen kopuruaren arabera).

Alde batetik, kanporaketetako sailkapen-ordena eta, bestetik, banakako azken posizioa zehazteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Sailkapen-fasea – Erlojupekoa:

Penalizaziorik gabe amaitzen duten palistak FLT, RAL, AB (Uztea, DNF) edo NP (Ez aurkeztua, DNS) bat jasotzen duten palisten gainera sailkatzen dira, eta zigortutako arteen honako ordena honetan sailkatzen dira: FLT, RAL, AB (Uztea, DNF), eta azkenik NP (Ez aurkeztua, DNS).

Penalizaziorik gabeko palistak erlojupeko denboraren arabera sailkatuko dira.

Palistek FLT 1 edo gehiago dutenean, FLT gutxien dituenetik, FLT gehien dutenera ordenatuko dira palistak.

FLT kantitate beraren kasuan, zirkuituaren progresio zuzenaren arabera zerrendatu eta sailkatzen dira. Zigorrik gabe urrunago joan den palista aurretik sailkatzen da. Ate berean FLT duten bi (2) palista edo gehiagoren kasuan, erlojupeko denboraren arabera sailkatuko dira.

RAL duen palista bat FLT 1 edo gehiagoko palisten atzean sailkatzen da

Palistek DESC bat jasotzen dutenean (deskalkifikazioa kirolen aurkako jokabideagatik, DQB), ez dira sailkatzen edo puntuatzen, eta ordena alfabetikoaren arabera ordenatzen dira.



Berdinketarik balego, RFEPEko Kayak Cross-en indarrean dagoen ranking nazionala erabiliko litzateke hori desegiteko. Ranking ofizialik ez badago, edo hura aplikatu ondoren berdinduta jarraitzen badute, zozketa egingo da sailkapena ezartzeko.

Kanporaketak

Kanporaketa-fase bakoitzean:

- Penalizatorik gabe amaitzen duten palistak FLT, RAL, AB (Abandonua, DNF), DESC-M (Mangarako deskalifikatzea, DSQ) edo NP (Aurkeztu gabea, DNS) jasotzen duten palisten gainerik sailkatzen dira, eta zigortutakoen artean honako ordena honetan sailkatzen dira: FLT, RAL, AB (Uztea, DNF), DESC-M (Mangartako deskalifikatzea, DSQ) eta azkenik NP (Aurkeztu gabea, DNS).

Kanporaketetako lehen kanporaketatik azken kanporaketara, palistak euren helmugako posizioen arabera sailkatzen dira.

Palistek FLT 1 edo gehiago dutenean, FLT gutxiagoko palistatik FLT gehiagoko palistara ordenatuko dira.

FLT kantitate beraren kasuan, zirkuituaren progresio zuzenaren arabera zerrendatu eta sailkatzen dira. Zigorrik gabe urrunago joan den palista aurretik sailkatzen da.

Palista bakoitzaren lehenengo hutsegitea ate berean gertatzen denean eta hutsegite kopuru bera dutenean, palistak iristeko ordenaren arabera sailkatuko dira. Berdinduta jarraitzen badute, sailkapen-fasean lortutako posizioaren arabera sailkatuko dira.

FLT kantitate beraren kasuan, zirkuituaren progresio zuzenaren arabera zerrendatu eta sailkatzen dira. Zigorrik gabe urrunago joan den palista aurretik sailkatzen da.

RAL duen palista bat FLT 1 edo gehiagoko palisten atzean sailkatzen da.

Palista batek DESC-C bat jasotzen duenean (deskalifikazioa kirolen aurkako jokabideagatik, DQB (Disqualification for unsportsmanlike behaviour), ez du fase honetan sailkatzen.

Kayak Cross-eko azken sailkapena

Kanporaketetarako sailkatutako palistak sailkatu gabekoen aurretik geratuko dira eta euren postua kanporatuta geratzen diren fasearekin bat etorriko da (finalak: 1-4, finalerdiak: 5-8, final-laurdenak: 9-16).

Kanporaketetarako sailkatu ez direnen azken postua sailkapen – erlojupeko proban lortutakoa izango da.

Kanporaketa berean hirugarren postuan dauden palista guztiak laugarren postuan dauden atleten gainerik sailkatuko dira.

Lehiaketaren fase berean kanporatutako palistek (finalerdiak, final-laurdenak), postu bera dutenek, berdinketa erabakiko dute sailkapen-faseko erlojupekoaren denboren arabera, eta dagokien postua lortuko dute.

17. Art. Zigorrak- Kayak Cross-ean

Palistei **hutsegite** bat (FLT) ezarriko zaie kasu hauetan:

- a) Irteera faltsua. Palista "LISTO" aginduaren ondoren mugitzen da, baina "YA" agindua edo irteera automatikoko mekanismoa aktibatu aurretik.
- b) Ezarritako ordenatik kanpo zeharkatutako atea, eskimotaje-eremua eta/edo -hesia barne.
- c) Zeharkatu gabeko atea, behar bezala zeharkatu ezean.
- d) Atea okerreko noranzkoan zeharkatzea. Binakako atea denean bakarrik saiatu ahal izango da beste aldeko atea behar bezala zeharkatzen.
- e) Eskimotaje-zona bat ezarri denean, eskimotaje osoa eremuaren mugen barruan egiten ez bada, baldin eta frankeoa behar bezala errepikatzen ez bada.
- f) Eskimotaje-hesia instalatu denean, ontzia ez bada erabat iraulita egon hesiaren azpiko punturen batean, non eta ez den behar bezala gurutzatzen.
- g) Aurreko bi kasuetan, ontziaren luzetarako ardatzaren arabera 360 graduko biraketa jarraitua osatzen ez bada, baldin eta zeharkatzea behar bezala errepikatzen ez bada.

Palistak RAL (Ranked as Last Finisher) gisa sailkatuko dira honako kasu hauetan:

- a) Aurkari bati eskuekin edo palarekin bultza egitea edo aurrera egitea galaraztea.
- b) Bere eskuarekin, besoarekin edo palarekin beste palista baten gorputzaren beste aldean nahita luzatzea eta/edo atxikitzea.
- c) Mugitu atea gorputzaren edo ekipamenduaren zatiren batekin, beste palista bat desabantailan jartzeko asmoz. Palistek eskuarekin baino ezin dituzte atea ukitu, esku hori palari eusten ari bazaio. Bestela, RAL bat jasoko duzu.
- d) Alboko palista baten gorputz edo itsasontziaren beste aldean nahita paleatzea.
- e) Aurkariaren buruaren edo gorputzaren aurka modu arriskutsuan kontaktatzea, eta kalte pertsonala eragitea.
- f) Palistari pala bat hausten zaionean eta atzera egiten ez duenean eta/edo bakarkako ibilbidea osatzen duenean. Palaren mutur hautsia arriskutsutzat jotzen da. Pala utzi eta eskuak erabil ditzakezu ibilbidea amaitzeko.

Palistak AB (Uztea, DNF) batekin zigortuko dira honako kasu hauetakoren bat gertatzen bada:

- Ontzia irauli eta uztea
- Helmuga ahuspez zeharkatzea

Irteera hartzen ez duten edo irteera horretan behar bezala aurkeztzen ez diren palistek, berriz, NP penalizazioa jasoko dute (Ez Aurkeztua, DNS).



Palista batek NP (aurkeztu gabea, DNS) zigorra jasoko du pertsona edo bere ekipoko edozein zati irteera-plataformatik erortzen bada LISTOren agindua baino lehen.

Palistaren ekipamenduak ez baditu betetzen irten aurreko kontrolean eskatzen diren baldintzak, ez zaio parte hartzen utziko, eta zigor gisa jasoko du NP (aurkeztu gabea, DNS). Palistaren ekipamenduak ez baditu betetzen iritsi ondorengo kontrolean eskatzen diren baldintzak, DESC-M (deskalifikatua, DSQ) zigorra jasoko du.

Oinarri hauetan edo EKFrener erregelamenduan jasotzen ez den erregelamendu-kontu oro ICFrener erregelamenduak arautuko du.

Irteeren prozedura

Irteera-plataformak, ahal dela, irteera-mekanismo automatiko bat izango du, irteera zuzenak ziurtatzeko eta irteera faltsuak ezabatzeko diseinatua. Epaile Nagusiak berrikusi egin behar du lehiaketa hasi aurretik.

Plataformak irteera-mekanismo automatikorik ez badu, palista irten ahal izango da esku bat plataforman bermatuta duela, eta beste eskua palari bertikalean eutsita. Bere pala erabil dezakezu bultza egiteko.

Irteera-plataformarik erabiltzen ez bada, korrontearen aurkako plataforma handi batetik edo geldikada egoki batetik irten daiteke, lehiaketan parte hartzen duten guztientzat ahalik eta bidezkoena dela ziurtatuz.

Irteera-ordena "POSIZIOAN – PREST... JADA" sekuentzia izango da ("IN POSITION-READY... GO"). POSIZIOAN JARTZEKO aginduaren eta PREST jartzeko aginduaren artean, palistak mugitu ahal izango dira, beren jarrera pixka bat doitzeko. PRESTen aginduaren eta irteera-seinalearen artean, palistek geldirik egon behar dute plataforman.

Irteera-sistema automatikoa erabiltzen denean, irteera-agindua "PREST..." izango da. ("IN POSITION-READY..."), eta, ondoren, irteera-sistema automatikoa aktibatzen da. PRESTen aginduaren ondoren, palistek geldirik egon behar dute irteera-sistema automatikoa aktibatu arte, bi eskuekin palari eusten diotela eta ontziarekin kontaktuan daudela. Irteera-mekanismoaren aktibazioak irteera-plataforman entzun daitekeen soinu bati lotuta egon behar du.

Banakako Kayak Crossean, irteera-sistema automatikorik ez badago, irteera-epaileak ez ezik, atzera-kontaktetako erloju bat ere erabil dezake.

Irteera-posizioak hautatzea

Kanporaketako lehen fasean, irteerako posizioak hautatzeko prozesua erlojupeko probako emaitzaren arabera izango da, eta bertan lehenak bere irteerako posizioa aukera dezake, ondoren, bigarrena eta, ondoren, hirugarrena eta laugarrena.

Hurrengo txandetan, aurreko txandako bi irabazleek posizioa aukeratuko dute, euren erlojupeko denboraren arabera. Ondoren, aurreko txandako bi bigarrenek, erlojupeko denboraren arabera.

Erlojupekoan berdinketarik egonez gero, RFEPeke ranking orokorra erabiliko da, eta rankingerako sarbiderik ez badago edo ez badago, lehenengo aukeratzen duen kirolaria zortetako erabakiko da.



18.Art.- Kopako klub en puntuazioa.

Sailkapen nagusia, KOPA hau osatzen duten 8 lehiaketetan klub bakoitzak eskuraturiko puntu en baturaren bitartez osatuko da.

19.-Art.- Berdinketak Haustea.

Lehiaketa bateko proba batean:

Lehiakide batek edo gehiagok, edo taldeka, puntuazio berdina eskuratuko balute, mangarik onenean, beste mangako emaitzak hautsiko du berdinketa; hala eta guztiz ere, berdinketa egoten jarraituko balu, lehiakideek postu bera eskuratuko lukete.

Ontzi batek edo gehiagok, urrezko domina elkarbanatuko balute, ez litzateke zilarrezko dominarik banatuko.

Hiru ontzik, edo gehiagok urrezko domina elkarbanatuko balute, ez litzateke, ez zilarrezko, ez eta brontzezko dominarik banatuko.

Bi ontzik edo gehiagok, zilarrezko domina elkarbanatuko balute, ez litzateke brontzezko dominarik banatuko.

Bi ontzik edo gehiagok, brontzezko domina elkarbanatuko balute, ontzi guzti horiei banatuko litzaieke brontzezko domina.

Slalom-eko Lehiaketa batean

Bi edo klub gehiagok puntu kopuru bera eskuratuz gero, berdinketa hausteko emakumezko K-1 Senior kategorian sailkapen onena eskuratu duenaren alde, eta berdinketak jarraituz gero, berdinketa hausteko honako ordena ezarri da:

Emakumezko Juniorra K-1, Emakumezko Seniorra C-1, Emakumezko Juniorra C-1, Gizonezko Seniorra K-1, Gizonezko Juniorra K-1, Gizonezko C-1 Seniorra, Gizonezko C-1 Juniorra, beste kategorietan adierazitako orden bera biko kanoetan. Jarraian, Kadete mailako ontzien bitartez hautsiko litzateke berdinketa, banakako ontzietan erabiliriko orden berarekin.

Kayak Cross-eko lehiaketa batean:

Bi klubek edo gehiagok puntu kopuru bera lortzen badute, berdinketa Emakume Seniorren X-1 kategoriako sailkapen onenaren arabera ebatziko da, eta berdinketak jarraitzen badu, honako ordena hau ezarriko da:

Emakumeak junior X-1, gizonezkoak senior X-1 eta gizonezkoak junior X-1.

Ondoren, kadete kategoriarekin desberdindu litzateke, beste kategorietarako adierazitako ordena berean.

Kopako sailkapen nagusian:

KOPA honetako lehiaketa puntuagarri ezberdinetan, lehenengo postu gehien eskuratu dituen klubaren alde hautsiko da berdinketa. Berdinketak jarraituz gero, bigarren postu



onenekin jarraituko da eta berdinketa haustea lortzen ez bada, hirugarren, laugarren, etab. Postuekin jarraituko da, berdinketa hautsi arte.

20.Art.- Tituluak.

KOPA honetan klub bakoitzak eskuraturiko puntuekin akort, honako tituluak eskuratuko dira:

- Slalom-eko Euskadiko XXVIII.Kopako Klub Txapelduna
- Slalom-eko Euskadiko XXVIII.Kopako Klub Txapeldunordea
- Slalom-eko Euskadiko XXVIII.Kopako 3. Kluba

21.Art.- Kopako lehiaketa ezberdinetan garaikurrak.

KOPA hau osatzen duten proba puntuagarrietan, honako garaikurrak banatuko dira:

Banakakoak:

Gutxienez, proba bakoitzeko ontzi garaileak urre koloreko domina jasoko du, bigarren sailkaturiko ontziak zilar koloreko domina eta hirugarren sailkaturiko ontziak, brontze kolorekoa jasoko du.

22.Art.- Kopako garaikurra jasotzea.

Sarituriko palistek, ordezkatzan duten klubeko dagokien jantziekin jaso beharko dute garaikurra.

Justifikaturiko kasuetan, garaileek garaikurra jaso ezin dutenean, derrigorrezkoa izango da, garaikurra, bertan ez dagoen kirolariak ordezkatzan duen klubeko ordezkari batek jasotzea.

23.Art.- Kexak.

a) Txapelketa:

Klub bakoitzak partehartzeari dagokion edozein kexa, Epaile Nagusiari aurkeztu beharko dio.

Kategoria bakoitzeko banakako emaitzak behin argitaraturik, Talde Buruek 5 minutu izango dituzte, penalizazio eta denboren inguruko kontsultak aurkezteko asmoa duela jakinarazteko. Kontsulta horiek dohakoak dira.

Berri hori, Epaile Nagusiari edo Emaitza Buru Epaileari eman beharko diote, kexetarako bulegoan

Epaile Nagusiak informazio guztia aztertuko du, kontsultaren ebazpenerako. Epaile Nagusiaren erabakia behin betikoa da eta apelaezina.



Klub batek beste klub batenganako kontsulta behin aurkeztu dezake txapelketan zehar. Ebazpenak emaitzetan eragiten badu, kontsulta burutu duen klubak ez du kontsulta berri bat egiteko eskubiderik galduko.

Kontsultaren ebazpena positiboa denean eta emaitzetan eragiten duenean, inplikaturiko klubei jakinarazi behar zaie.

Txapelketan zehar, irregularitasunak emanez gero, esaterako, ur mailan aldaketak, ibilbidean zehar objektu arrotzak, ateen kokapenean aldaketak, aurreratzeak, baldintza meteorologiko txarrak. Talde Buruak kexa bat aurkeztea izango du, beti ere, Kexetarako bulegoan emaitza ez-ofizialak argitaratu eta 5minutuko epean asmo hori jakinarazi badu.

Talde Buruak, galdetegi ofizialean bete beharko du kexa. Berau, Epaille Nagusiak, emaitza ez-ofizialak argitaratu eta sinatu ondorengo 20minutuetan aurkeztu beharko duelarik.

Epaille Nagusiak edo Kexetarako bulegoak kexa galdetegia onartuko du, 20€ko tasa bat entregatua izan bada. Kexa onartua izan bada, tasa itzulia izango da. Kexa ukatua izan bada, ez da tasa itzuliko.

Epaille Nagusiak, edozein kexaren zilegitasuna ebaluatuko du, parte hartu duten epaileei kontsultatuko zaie, eta beharrezkotzat jotzen badu, bideo ofizialaren irudiak ikuskatuko ditu. Eragiten dien Talde buruei idatziz jakinaraziko dielarik bere erabakia.

b) Kopa

Kopako puntuazio edo bestelako gaien kexak, EKF-tzan aurkeztuko dira dagokion moduan eta epean.

24.Art.- Kopako Garaikur ematea.

2026 denboraldiko EKF-tzako Galan Kopako lehenengo sailkatuei garaikurrak banatuko zaizkie.

25.Art.- Klub aldaketa

KOPA honetan puntuagarri den lehiaketaren batean parte hartu duen piraguistak, klubez aldatu eta klub berriarekin parte hartu ahal izango du, baina, inolaz ere puntuatu, KOPA hau osatzen duten lehiaketetan, denboraldi berean aldaketa ondoren ospaturiko lehiaketetako edozein delarik kategoria.

26.Art.- Lehiaketa geldiaraztea.

Edozein dela kasua, KOPA-ko lehiaketaren bat geldiarazi beharko balitz Euskal Kanoe Federakuntzako Zuzendaritzako batzak ezarriko du ordezkatzan duen lehiaketa edo bere



behin betiko geldiaraztea, beste leku batean ospatzea ez balego. Puntuaketa soilik ospaturiko probekin osatuko da.

27.Art.- Bestelako arauak.

KOPA honetan puntuagarri diren lehiaketetarako arauak, araudi honen bitartez zuzenduko dira eta aurreikusi gabeko kasuetan, EKFTzako araudien bitartez. Araudiak argitzen ez dituen gertaerak, RFEP-lako araudia ezarriko da eta iraunez gero, FIC-arena.

EKFTza zein laguntza teknikoa eskaintzen duten erakundeak ez dira KOPA honetan parte hartzen duten klubei, lehiaketan zehar zein garraialdian, gerta dakiekeen ontzi eta bestelako materialen kalteen erantzule izango.

Parte hartzen duten ontzi guztien, flotagarritasun sistemen erabileraren nahitaezkotasuna gogorarazten da. Eta palistek kaskoa eta salbamendu jakaren erabilera.

28.Art.- Ontzi Kontrola.

KOPA osatzen duten zortzi txapelketetan, ontzi kontrola burutu ahal izango da.

29.Art.- Informazioa.

KOPA honekin erlazionaturiko edozein informaziotarako, EKFT-tzan galde daiteke, bai bere Web orrialdean, www.euskalkano.eus, bai telefonoz zein idatziz.

Sergio Arana Alonso
EKFTzako PRESIDENTEA